

kela, Euskaltzaindiaren idazkeraz ingitxo ori azaltzea. Euskaltzaindiak aitzakotzat artu du, Azkuek dasana.

12. Euskaltzaldiaren erabakiz, emendik aurrerontzean, Bareño ta Oyarzabal langile azkar ta adoresuei, Azkue jaunak eskatuko diye astero-astero, eren zer ta zenbateko lanen txostenaz; ta lanak dakaften mamiaz sariya ere emango zaye.

13. *Estudios Vascos* edo Euskal-Irakaskuntzak Euskaleriko erri, ibai, mendi ta enparau izenak Euskaltzaindiari bidali dizkiyo, Euskaltzaindiak zuzen deritzanaz, artez edo onetsi ditzan. Euskaltzañak, zein efidiko diranez, lan onen zatia artu dute.

14. Kanpion jaunak euskal-mintzokeraren idazti edo liburutxo bat argitaratu bear litzakela, diyo, Euskaltzañak oretan ere daukate iritxita gogoā, bañan ez da oretzaz erabakirik artu.

Ta besterik ez da, otoizaz amaitza eman zayo batzañaldi oni.

Donostia 'n Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian, 1921 'ko Garagañila 'ren 27 ' an.

Euskaltzain abek batzañera bildu ziran; Azkue, maipuru, Urkixo, Kanpion, Lakonbe, Landeñetxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Lhande, Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Aita Lhandek, Prantziko Tolosan Gabel jaunak izan dituen euskeratzazko itzaldi mamitsuen xea-

tasun dager. Euskaltzaindiak gogoz entzun du Lhande jaunak dasana, ta bereziz noski Tolosako Ikastetxe-nagusiko Lendakariyaren asmoa, alegia, beronek alegin egingo duela, *Licenciature*-ko jakin-malako beařbidetan euskerazko ikastaroa sařtzeko.

2. Buenos-Aires'en dan Aita Soloetak euskarren batasunaz zerbait idatzi du noski, *Baskonia* deitzen dan ango aldirokoan; ta bere lanari akets edo txosten jaři dezayokenari *1000 peseta* eskeintzen dizkio. Euskaltzaindiari auxe idazkiz dagerkio. Onek erabaki du: ařen egiteko Aita Soloetari bere lan ori bidaltzeko, ta Euskaltzaindiak gerokoa aburutu dezakela.

3. *Eskutitzak*. Buenos-Aires'ko *Laurak-bařena*, bere zuzenbatzordea uręngo urterako nola antolatu dan adieraziaz. Eskeřak ematea erabaki da.

Edouard Champion—Onek «Atlas linguistique de la France» Euskaltzaindiari eskeintzen diyo. Ez dala beařik erantzutea, erabaki da.

Ramón Menéndez Pidal jaunak dasa, Euskaltzaindiak bidali diyon izenpena gogoz ařtu duela.

F. Staud' ek liburu edo gutun batzuen eskeintza. Ezetz.

Odon de Apraiz gazte askař onek dasa, Euskaltzaindiaren berekiko nayaren beři baduela; Udaran Ondaróan izango dala, ta anditxek erantzungo duela.

4. Aita Lezok egin dituan itzaldien txostena Eguskitza jaunak irakuři du; ta berau ontzak artu-ta, aita Lezori itzaldi ta txostena bidaltzea, Euskaltzaindiak erabaki du.

5. Eusko-ikaskuntzak esku artean dakaŕen *Mapa*, naiko uts dariona Euskaltzaindiak deritza. Alike-ta utsune oyek bete, ta lan orixe atalka ta pitinka an-tolatu arte, Euskaltzaindiak ezin ezer urgatzi dezake.

Altube Euskaltzain jaunak oritxo egoki bat ageŕtu du, Euskal-erian, euskal-izenak bildu, nolaz esan, nolaz aldatu ditezken jakiteko. Auxe da oritxo oŕen era:

Pueblo	—	Nombre y apellido del informante	—	Español	—	Definición	—
						Diccionario	{ uso euskerico puro uso eusko-erderico

Euskaltzaindiak aitzakotzat artu du.

Ta berandu izan-da, batzaldia jaiki da, oizko otoitzez.

Donostia 'n Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian 1921 'ko Garagaŕila 'ren 28 'an.

Batzaŕaldira datoz euskaltzain abek: Azkue, mai-puru, Urkixo, Kanpion, Lakonbe, Landeŕetxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Lhande, Intzagarai; urgaz-lerik batez.

1. Oizko otoitz ostean, kisa-aldatza artu da arlo-tzat, urte bitik urte bira, Euskaltzaindiak, arauetan daukanez, kisak aldatu ta beŕitu beaŕ ditu. Oraintxe garai dagokio, ta Maipuruak orixe dager. Eleizalde euskaltzain jaunak, gaxo dala-ta, ezin etoŕi dala gas-tigatu du; baŕnan iru Kisarako, Buru, Zadoflari, ta